

KOSTUEN EGITURA

Paranga enpresako kideek badakigu proiektu hau aurrera ateratzeak hainbat kostu dakartzala eta inbertsioak egin beharko ditugula. Gure enpresa arrakastatsua izateko, kostu hauei aurre egiteko gai izan behar dugu eta hauek bi taldetan sailkatu ditugu: kostu finkoak eta kostu aldagarriak.



Kostu finkoak: Kostu finkoak ekoizpenarekiko independenteak dira, hau da, euren balioa ez da aldatzen, ekoizpena aldatu arren. Kostu finkoen barruan sartzen dira plastikozko botilak arropa bihurtzen dituen makina, webgunearen hosting-a eta enpresa guztiek ordaindu behar dituzten zerga iraunkorrak.



Kostu aldagarriak: Kostu aldagarriak ekoizpenarekiko proportzionalak dira, hau da, ekoizpena hazi ahala, kostu aldakorrek ere haziko dira. Kostu aldagarrien barnean sartzen dira arroparen garraioa, gure lokaleko argindarra eta ura, enpresa martxan jartzeko zergak, Be Green enpresarekin kolaboratzeagatik ordaindu beharreko gure makinaren irabazien %10a eta azkenik, kolekzionatutako tiketen ordainetan emandako opari kamiseten ekoizpena (100 tiket beharko dira horretarako).



Kostu guzti hauek altuak direla ikusi dezakegu, izan ere, ez gara kostuak minimizatzen ahalegindu, baizik eta gure bezero espezifikoiei (ingurumenaren etorkizunaz arduratuta dauden horiei) kalitate-maila handiko produktuak eskaintzen. Enpresako bazkideok hasieran



12.000 €-ko inbertsioa egingo dugu eta bestalde, laguntza ezberdinak eskatuko ditugu, ondorioz, bildutako diruarekin enpresa martxan jartzeko nahikoa izango dugulakoan gaude. Diru horren zati bat, aipatutako kostuak, baliabide fisikoak... erosteko erabiliko ditugu eta bestea publizitatean inbertituko dugu.

Azkenik, beste kostu mota bat aipatu nahiko genuke, **kostu naturala**. Gure proiektuaren helburu nagusietako bat ingurumena zaintzea izan da hasieratik. Hori kontuan izanda, azpimarratu nahi dugu gure enpresak kostu naturalik ez duela izango, beste zenbait enpresek ingurumenean duten eragina arintzen ahaleginduko garelako. Baliteke, etorkizunean, beste zenbait ekintzailek gure enpresa eredutzat hartu eta jasangarritasuna bultzatu nahi izatea ere, gure ustez, bizitzako gauza garrantzitsuenetako bat baita.



KOSTU FINKOAK	
Makineria	5000 €
Webgunearen hosting-a	10,49 € (hilabetean)
Bestelako zergak	200 € (hilabetean)

KOSTU ALDAGARRIAK	
Martxan jartzeko zergak	500 €
Garraioa	100 € (hilabetean)
Argindarra eta ura	300 € (hilabetean)
Be Green enpresaren kolaborazioa	4500 € (urtean)
Oparitzeko kamisetak	50 € (hilabetean)